

[b]
BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

607. zkia.

XV. urtea

2007ko martxoaren 23a



Aritz Monasterio, mendi gidaria

**«Mendiak nire bizitzako unerik
zoriontsuenak eman dizkit»**



AMAIA GORROTZATEGI

Ez dakit zer idatzi pozik nagoenean. Kontatzeko ezer ez dudala iruditzen zait. Eta azken aldian zaila da ni tristetzea.

Hemen ezagutu ditudan pertsona asko berriz ikusiko ez ditudala pentsatzeak ere ez nau triste jartzen. Uste dudalako betirako beraien alde onarekin geratuko naizela. Nadjaren barrea gogoratuko dut, ez goizero esnarazten nauelako, barregura sortarazten duelako baizik. Angelari ez zaio ilea urdinduko. Ez nire buruan behintzat. Beti izango du Pipi Langstrun bezalako azenario koloreko ile eder hori. Eta Daniel Levi's apurtuak daramatzen anarkista izango da. Betirako. Ez nuke nahi "sistema"-n sartu den eta Labour party-ri botua ematen dion Daniel ezagutu. Hori ez da nik gorde nahi dudana Daniel.

Txikitan erraldoiak eta ikusgarriak iruditzen zitzaizkidan lekuak, txikiak eta arruntak iruditzen zaizkit orain joanda. Gauzek beren xarma galtzen dutelako kontestutik kanpo. Gauza bakoitzak bere momentuan duelako grazia. Eta grazia hori da barruan geratu behar dena. Gogoratu behar dena.

Atzoko momentu txarrak gosarritako kafetan urtu behar dira Maria gailetakarekin batera eta urtero, abenduak 31n gaueko 23:59tan pentsatu datorren urtea amaitzeaz dagoena baino hobea izatea ezinezkoa izango dela. Hori da zorientasuna.

ZOZOAK BELEARI...

«Azken
aldian
zaila da
ni tristetzea»

AMAIA

«Gustura
nabil
egiten dudana
egiten»

AINHOA



AINHOA MENDIBIL

Ulertzen zaitut bai Amaia! Primeran gainera! Ez dakizu ondo ni ze pozik nabilen! Gustura nabil egiten dudana egiten. Oraintxe, ez atzo, ez eta bihar. Orain bertan, eta akaso horregatik, lehen baino gutxiago pentsatzen dudalako, disfrutatzen dut gehiago. Idaztearena? Egia borobila! Nik beti pentsatu izan dut berdina. Pozik banabil, zergatik alperrik galdu denbora idazten, paperaren gainean, eta ez kalean, etxean edo edozein tokitan, baina edozeini, edozelan, edonoiz irriparre egiten?

Pisuko "nire konfidente maitea" begira-begira geratu zait eta esan diit edozer gauzarekin emozionatzen naizela. Irribarrea irten zaio gero berari ere. Nik garbi laga diot, ezetz; ni berez nagoela emozionatuta, eta edozerk ateratzen didala emozio hori barrutik, nahiz batzutan disimulatu... eta egia da. Polita da gainera. Zuk ere segi horrela maitia, segi horko lagunekin gozatzeko, hor eta orain, orain daudelako hor. Eta ez tristetu ez direlako egongo, orduan ere izango da eta beste zerbait, norbait, nonbait. Eta tristetzen bazara, ba egin negar. Hori ere egin behar da eta, momentuan barruak eskatzen badigu. Hori ere ez al da ba polita? Gava negarrez pasatu, eta hurrengo goizean geure buruataz barre egitea. Biak dira ederrak, hala sentituz gero. Asike segi horrela polit hori, nik berdin jarraituko dut eta. Irribarre goxo-goxo bat hemendik eta orain (eta ez beti!).



ZORIONA EZ DA NABARITZEN, GOGORATU EGITEN DA



Oscar Levant

Ez ziran nazionalak izan!

Aurreko asteko BARRENeN, Zozoak beleari atalian, zera irakurri nion Alaitz Vivesi: "70 urte bete dira nazionalak Elgetara sartu zirenetik". Baiña Elgetara sartu ziranak ez ziran nazionalak izan; frankistak izan ziran. Errepublikiarren kontra altxatu ziranei nazionalak deitzeko ohituria daukagu, baiña hauek ez ziran nazionalak. Franco izan zan Errepublikiarren kontra altxatu zana, eta berak erabaki zaban eurak nazionalak zirala; Errepublikiarren aldekei, berriz, gorrixak, anarkistak eta separatistak deitu ziren (*rojos, anarkos y separatistas*, eurak esaten zeben moduan). Ordua da egixa esan eta bakoitzari bere izenarekin deitzeko: Nazionalak Errepublikiarren aldekuak ziran, eta Francoren aldekuak, berriz, faxistak.

Gaur egun ere antzera dabilta; eurak dira onak, eta Gobernuan daudenak txarrak.

MANUEL JAUREGI ARRIOLA

OHARRA

Joan zen astean 150 ale gutxiago jaso genituen inprentatik, ondorioz, Santa Ana kaleko etxe batzutan, Trenbide Kalean eta Nafarroa Plazako etxeetan ez zenuten BARRENeK jaso. Berriz horrelakorik ez gertatzea espero dugu.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhahitatez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com




BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.620 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

- **Udaltzainek pankarta bat bota zuten ibaira:** Herritar batzuk esan digutenez, "duela zenbait aste, zapatu gabean, pankarta bat traban zegoen Madalako errotondan. Udaltzainak pankarta kentzera etorri ziren, eta jarraian, ibaira bota zuten". BARRENez kazetariak Udaltzain Buruarekin jarri dira harremanetan zer gertatu zen jakiteko, eta bere esanetan, hori gezurra da. Udaltzainek ez zutela pankartarik bota ibaira ziurtatu digu, baina ez digu argitu zer gertatu zen.

- **Santa Klara auzoan aparkatzeko arazo handia dago:** "Herriko toki askotan aparkatzeko arazoak daude, baina Santa Klara auzoan gertatzen dena sinestezina da. Ez daukagu non aparkatu, mila buelta eman arren, ez dago lekurik. Arazoa gehiago areagotzen da tanatorioan hildakoren bat dagoenean, izan ere, jende guztia kotxez joaten baita hildakoa bisitatzera, eta bertan bizi garen auzokideok ezin izaten dugu inon aparkatu. Gure ustez, Etxeberria Funerariak bere aparkaleku propioa eduki beharko luke, bertara joaten direnek aparkatu ahal izateko. Santa Klara auzoak irtenbide bat behar du."



- **Pedro Muguruza Etorbideko espaloia oso egoera txarrean dago:** "Gure auzoko espaloia oso zaharkituta dago, puskatuta eta konpontzeko behar handia dauka. Udaletxean kexa asko jarri ditugu, baina ez digute kasurik egiten. Gainera, eskailera asko daude espaloian Madalatik hasita, Artetxera bitartean. Ondorioz, gurpildun aulkian dabizen ezinduak edo umearen aulkiarekin ibiltzen direnak errepidera atera behar izaten dute. Errepide honetatik auto mordoak ibiltzen da, eta ez da batera zabala. Oinez doanarentzat eta baita gidarientzat ere, arriskutsua izaten da egoera. Espaloia konpondu eta beharrezkoak diren aldapak egitea eskatzen dugu, denon segurtasunerako".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNIOREN
Luma

Venezia

Goibeltzen naute Venezia zahar eta usaintsu ikusten duten begiek. Hain da ezberdina nik ikusi nuena... hain da ezberdina 2 pertsonak toki beraz gorde dezaketan oroitzapena... hainbeste eta hain ederrak dira nik Venezian nireganatu nituen matiz guztiak... Ez nuen astirik izan, ezta gogorik edota ariman tokirik gauza txarrik gordetzeko.

Goibeltzen nau asko espero izanagatik, bertan topatutakoa ez preziatzeak. Nik edozer emango nuke hiriarri buruz ezer jakin gabe, egunen batean munduan zehar atzera eta aurrera nabillera, kasualitatez Veneziarekin topo egitearren. Hain da polita...! Itzultzeko desiotan nago... beti. Venezian egingo dugu topo noizbait, baina mesedez, begiraiozu berari buruz sekula ezer entzun ez bazenu bezala... eta kontatuko didazu. Liluratuko zaitu, ni sorgindu ninduen bezala.

Ainara Sedano

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ANA
MOCHALES

GOIARA
LURRINDENDAKOA

• Oinatzat lagatzen duen perfume bat?

Perfume bizia, usain asko daukana, egun osoan zehar irauten duena.

• Gizonezkoentzako kolonia bat?

Gozoa ez dena, enpalagosoa ez izatea.

• Eta emakume batentzat?

Kolonia freskoa, iraunkorra.

• Ikusi al duzu "El perfume" pelikula?

Bai, oso fuertea. Perfumeak nola egiten diren ikustea oso polita da, baina hildakoen esentzia bilatzea, gogorregia.

• Perfume perfektuak izan behar dituen ezaugarriak?

Botatzen duzun momentuan igartzea, usainak egun osoa irautea eta ingurukoek igarri dezatela, pasatu gabe, noski. Perfumea gutxi bota behar da, usain handia dauka.

• Distantzia laburretan huts egiten ez duen esentzia?

Armani Code, bai neska eta bai mutilentzat.

• Marilyn Monroek ohera joateko ere perfumea jartzen zuen. Ematen al diogu koloniarri garrantziarik?

Bai, jende asko ez da etxetik ateratzen perfumerik gabe.

• Zein motatako perfumea saltzen da gehien?

Telebistan agertzen dena, dudarik gabe. Izugarritzko eragina dauka publizitateak.

Astelehenetik aurrera...

KORRIKAko
erretratuak!



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Gabonak»

Gabonak sagrauak ziran. Beti familixan pasatzen genduzen, eta oiñ ere bai. Gazte jendiak gero eta gehixago daka Gabonetan oporretara juteko ohitua, baiña guk familixan mantentzen dogu tradizio hori. Gaur egungo belaualdi-xekin ohituta hori gal-tzen jungo dala uste dot, baiña zeo-zer mantenduko

da; ez da dana galduko. Gure denboran ere erregaluak egitten ziran, baiña ez gaur egunian bezela.

Lehen ez zauan dirurik, eta igual urte baten egitten zizuen erregalua aste betera desaparezidu egitten zan, eta hurrengo urtian erregalo iguala ekartzen zizuen.

Gu gaztiak giñanian Erregiak etortzen ziran. Olentzero gerora azaldu zan, euskeriak eta Ikastoliatan batera. Hala ere, gu umiak giñanian ez zan kabalgatarik egoten, horrek danak ni nagusittuta sortu ziran.



[GURE BERBAK]

Fonologia (2)

Pasa dan astian mugatzaillak (-a, -ak, -ok) hitzaren amaieran zer aldaketa sortzen zittuan ikusi gendun, hitzaren amaieraren araberak (-a, -e, -i eta -o; -u amaieradunetan ez dago aldaketarik: *katu + -a* \Rightarrow *katua*). Bilakabide horrek berak gertatzen dira erakusle mota batekin ere, hori gizonori modukuekin hain zuzen, izenaren aurretik eta ostian erakuslia dauken egitturretan. Gaztien artian indargalduta dago egitura hau, baiña jende edadetuak normal-normal darabil.

Hona hemen aldaketok eta hórren adibide batzuk:

andra + erakuslia \Rightarrow *hori andrioni* (-a \Rightarrow -i-)

ume + erakuslia \Rightarrow *hori umiori* (-e \Rightarrow -i-)

ardi + erakuslia \Rightarrow *hori ardixori* (-i \Rightarrow -ix-)

asto + erakuslia \Rightarrow *hori astuori* (-o \Rightarrow -u-)

Hona elgoibartarren jardunetik ateratako adibide batzuk:

Bitorrenekua, oiñ Iriondonekua dana, (...), horixe taberniori.

Eta, gau haretxetan sortu zan hori alar-miori Markiñan.

Bai, edarra ikusteko. Ikusi be nakan hori, hori alderdixori, eta edarra, ikusteko.

Ikusten dok? Hori deposituorri? Hori dagoak husten oiñ.

Bueno hau erreakiau hola ta hola zatorren hortikan.

Jesus Mari Makazaga

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

Aztergaiak:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2006ko memoria eta balantze ekonomikoa.
3. 2007ko helburuak eta aurrekontua.
4. Zuzendaritza Batzorderako kide berrien proposamena.
5. Galdera-erantzunak

Eguna:

- Martxoak 26, astelehena


Ordua:

- 19:00

Tokia:

- Kultur Etxeko hitzaldi gela

Elgoibarko Izarrako bazkide guztiok zaudete gonbidatuta. Azalduko zareten esperantzarekin.



«Negu epela izan dugu baina lasai, datorrena ez bada, hurrengoa etorriko da hotza»



Telebistakoa dela esaten dionari, Gabirikoa dela erantzuten dio Andoni Aizpuruk; telebistan lan egiten duela, soilik. 14 urte daramatza eguraldiaren berri ematen ETBn. Negu honetan mundua hankaz gora jarri du eguraldiak. Gizakiaren kontroletik at dagoen fenomeno honi buruz egin dugu berba berarekin. Gaur gainera, Metereologiaren Nazioarteko Eguna da.

• Zer gertatu da aurtengo neguan?

Badakigu gertatu dela, eta uda epela izan dugula, baina horren zergatia jakitea ez da erraza. Dena dela, garrantzia kendu behar zaio. Neguak hotza eta elurra ekartzen du normalean, baina eguraldiak batzutan sorpresak ematen ditu. Baina lasai, datorrena ez bada, hurrengoa etorriko da hotza, eta euritsua. Eguraldiaren gorabeherak dira.

• Baina klima aldatzen ari da, ezta?

Bai, baina jendeak aurten gauza bat oso oker egin du, komunikabideek batez ere. Ni saiatu naiz hori ez egiten, baina orokorrean, negu epel hau klima aldaketarekin lotu dugu, eta hori okerra da. Egia da klima aldatzen ari dela, baina horrek ez du esan nahi hemendik aurrera negu guztiak epelak izango direnik.

• Zein ondorio ekarriko ditu klima aldaketak?

Eztabaida asko dago, metereologoak ez gara ados jartzen, ez daude batera argi honek ekarriko dituen ondorioak. Temperatura igotzen joango dela nahiko argi dago, glaziarrek gero eta gehiago urtuko direla ere, ez dago zalantzarik, baina horrek eguraldian izango duen eragina ez dago batera argi. Zenbait lekutan, akaso, euri gehiago eta hotz handiagoa egin dezake.

• Eta negu honen ondoren, nolako uda izango dugu?

Duela hiru aste izan ziren tenporak eta Pello Zabalak esan duenez, udaberria nahiko normala izango da, hau da, euri dezente egingo du eta tenperatura aldetik nahiko normala dator. Udari buruz ez dakit ezer. Gure mapa eta sateliteekin astebete baino gehiago ira-

garterik ez dago. Hor dago eguraldaren xarma. Jendeak gehiago eskatzen digu. Santiago Egunean ez kontza bat daukatela eta egun horretan zer eguraldi egingo duen galdetzen didate askotan, eta hori zehaztea ezinezkoa da. Euskal Herrian, gainera, eguraldia oso aldakorra da.

• Zer dira tenporak?

Antzinatik zehaztuta dauden egun batzuk dira tenporak, elizak jarri zituen urtaroekin lotura zuten egun batzuk, otoitz egunak edo. Garai bateko baseritarrak egun horietan fijas ziren ondorengo hilabeteetan nolako eguraldia egingo zuen jakiteko. Pixkanaka-pixkanaka ohitura bihurtu da eta guregana Pello Zabalari esker iritsi dira. Ez dut itsu-itsuan sinisten tenporetan, baina iturri hori edukitzea interesgarria iruditzen zait. Eguraldiaren joera ematen digute tenporek, ezin zaie eskatu egun konkretu batean zein eguraldi egingo duen zehaztea. Dezentetan asmatzen dute!

• Gizakiak eguraldia kontrolatzeko aukera izango balu?

Kitto orduan! Gaur egun petrolio eta urarengatik borrokak izaten diren moduan, eguraldiak gerra ekarriko luke. Interesak desberdinak dira, eta interesak sartzen direnean sortzen dira gatazkak. Gizakiok demostratu dugu neuririk ez daukagula, beraz, batzuk uretan itota egongo liriateke eta besteak eguzkiak erreta. Eguraldia deskontrolatua izan behar da, gu saiatuko gara kate motzean kontrolatzen, hiru edo lau egunetako tartean, besterik ez.



- **Zer da zuretzat eguraldi ona?**

Garaian garaikoa. Udako eguraldi ederra, eguzkitsua, hondartzara joatekoa gustatzen zait, baina neguan negua egitea ere gustuko dut. Hau da, elurra tamaina batean, edo batzutan etxeraino egitea ere gustatzen zait, niri kateak jartzeak ez dit buruko minik ematen. Mendiak elurtuta ikusteak eta elurretan ibiltzea izugarri gustatzen zait. Udazkeneko hego haizea, orbela eta uso pasea, eta udaberriko euria... Beti eguzkia ez da ona.

«14 urte daramatzat eguraldia aurkezten»

- **Aurtengo negua, beraz, ez da ona izan...**

Ez. Aurtengo neguan izan ditugun egun beroak ez dira onak izan. Jendea pozik ibili da, negu epela eta erraza izan da, baina ez da naturala izan. Lehortearekin nahiko lari ibili gara! Eskerrak egun zehatz batzutan euri asko egin duen! 6-8 egunetan negu osoko euriaren %80a baino gehiago egin du. Oso bitxia da, hildeberririk inguruan egin du euri gehien. Ilargiaren eragina ez dago demostratuta zientifikoki, baina kontuan hartzekoa da.

- **Magisteritza ikasketak egin zenituen. Nola sartu zinen metereologia munduan?**

Txirripaz! Natur zientzietatik egin nuen magisteritza, zientzien mundua asko interesatu izan zait beti. Eguraldia aurkezteko kasting batetara deitu ninduten eta 14 urte daramatzat dagoeneko. Ni ez naiz metereologoa, telebistan ikasi dut metereologia. Metereologo onak izan ditut alboan, eta unibertsitatean beste ikasi dut.

- **Eguraldia emateaz gain, saio askotan ibili zara. Zein izan da kuttunena?**

Saio mordoska bat egin ditut eta aukeratu ditudanen artean, bakoitzak berea eman dit. Gehien egin dudana "Bertatik Bertara" izan zen. 8 urtez egon nintzen saioa aurkezten, oso gustuko nuen. Guk nahi genuen moduko saioa egiten genuen. 8 urte asko dira, 1.500 saio inguru aurkeztu nituen. Ziklo polita izan zen, eta neuk eman nion amaiera, bukaerarako nahiko errepikagarria iruditzen zitzaidalako.

- **Orain "Bi errepidean" programan zabilta. Zer moduz doa?**

Oso ondo. Urko Aristirekin batera programa hau aurkezteko aukera eskaini zidaten, eta oso gustura nago. ETBko nagusiek ezagutzen dute nire perfila eta bada-kite edozer gauza aurkezteko ez dudala balio. Tartean beste saio batzuk ere egin izan ditut, "Barnetegia", esate baterako. Apustu bat izan zen eta egindako lanarekin gustura geratu nintzen. Egia da, urte hauetan egindakoen artean, "Bertatik Bertara" saioak pisu handia izan duela.

[PROTAGONISTA]



J.M. Makazaga

“Elgoibarko euskara” liburua idatzi du Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrak. Gure herriko hizkera bere osotasunean aztertu du, ahozko tradiziozko euskeria jasoa eta indartzeko ahaleginean. Ezaugarriak desagertzeaz dituen euskara eredu bat, Elgoibarkoa, alegia, ahal den fideltasun handienarekin jasota lagako duen lan bat egitea izan da proiektu honen helburu nagusia. 1999. urte amaieran hasi zituzten Makazaga eta bere laguntzaileek liburua osatzeko lanak. Datorren martitzenean aurkeztuko du liburua Kultur Etxean, 19:00etan.

[NOTIZIA]

Otegiren kontrako zigorra atzera bota zuten Fiskalak eta libre geratu zen

Arnaldo Otegi, Batasunako bozemailea epaitu zuten asteazkenean Olaia Kastresana ETakidearen hiletan “terrorismoa goratzea” leporatuta. Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak elgoibartarraren kontrako karguak erretiratu egin zituen eta Arnaldo Otegi libre atera zen Auzitegi Nazionaletik. Dena dela, arratsaldeko orduak atxilotuta pasatu zituen. Goardia Zibilak bere etxean atxilotu zuen Arnaldo Otegi, epaiketa hasteko orduan ez zelako Madrilen azaldu. Goizeko 10:30ean hasi behar zuen epaiketak, baina elurtearen ondorioz ezin izan zuen Burgosen aurrera egin eta etxera itzuli zen. Epailleak Arnaldo atxilotzea eta Auzitegi Nazionalera eramatea agindu zuen. Loiuetik eraman zuten Madrilerara hegazkinez.



Segurtasun neurri handiak

Herrirako sarrera guztiak kontrolatu zituen Goardia Zibilak eta 7 mendi ibilgailu gerturatu ziren Santa Ana kalera Arnaldo Otegi atxilotzera. Herritarren babes ohia atxilotu zuten. Iluntzean manifestazioa egin zen herrian.

[ZENBAKIA]

300.161

2007ko aurrekontuetan azaltzen denez, Udalak 300.161 euro erabiliko ditu Mupem enpresa zaharra eta bere ingu-

runea berritzeko. Fundizio zaharra zegoen tokitik Urasandi auzora doan bidea itxuraldatu eta apainduko dute.

asteko [ARGAZKIA]



Udaberriko lehenengo eguneko irudia da hau. Negu epela izan dugu, baina ez du erraz alde egin nahi, azken egunera arte egon da gure artean. Orain arte lo, baina agur esan behar zigun unean esnatu da. Martxoaren 21a, eguaztarena, negua dirudi: mendiak eta teilatua zuri ikustea ohikoagoa da gurean, baina oraingoan kalea ere elurrez jantzi zaigu. Autoak labain eginda, oinezkoak poliki-poliki kalean kontu handiz, errepideak itxita, autopistan kotxeak geldirik... Ikusteko polita, baina su epelean, leiho atzetik, askoz hobeto.

271.671 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari



Elgoibarko Udalak 271.671 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2007an Elkar-teak gauzatu eta garatu nahi dituen proiektu eta egitasmoak finantzatzeko. Dirulaguntza hau bi udal sailetatik bideratuko da: Euskara Sailetik 145.671 euro eta Gazte Sailetik 124.803 euro. Proiektu eta programa batzuk bere osotasunean finantzatzen ditu Udalak (Gurean Bai-Hitzarmena, Kuadrillategi programa eta Euskara Errefortzuak), eta beste batzuetan, beriz, aurrekontuaren zati bat da Udalak finantzatzen duena: Haur eta gaztetxoek aisialdia % 75ean, Kultur jarduerak % 33an, BARREN %25ean eta elgoiBARREN.net %16an.

DIRULAGUNTZA AIPAGARRIENAK:

- Haur eta gaztetxoek Aisialdia 126.000 euro
- BARREN 53.587 euro
- GUREAN BAI-Merkataritza 36.932 euro
- Kuadrillategi 26.200 euro
- Euskara errefortzuak 18.000 euro
- elgoiBARREN.net 6.000 euro
- Kultur jarduerak 2.930 euro

San Pedro eta San Antolin arteko bidea konponduko dute



San Antolin eta San Pedro kalea lotzen dituen bide zaharra konponduko du Udalak. Udal aurrekontuetan agertzen denez, 150.000 euro bideratuko dira bide zati hau berritzeko. Ur depositu zaharretik San Antolinera doan zatia egoera kaskarragoan dago, eta aldiz, San Pedro kaletik depositu zaharretainoko zatia hobeto dago. Hala izanik ere, bide guztia konpontzeko asmoa dutela adierazi du Migel Angel Mujika, Hirigintza zinegotziak, eta koskarik gabeko espaloia egingo dutela gaineratu du.

[MOTZ-MOTZIAN]

Gazte Eguna

Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna izango da bihar, martxoak 24. Ekintza desberdinak antolatu dira: 12:30ean triki-bertsu poteoa Madalatik hasita, 14:00etan paellada herrikoa Gaztetxean, ondoren jolasak eta gaueko 21:00etan "Extorsion" eta "Grises sueños" taldeen kontzertuak.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Udalak jakinarazi duenez, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago: martxoaren 14tik apirilaren 30era, biak bane egin daiteke ordainketa. Zerga hau, Santa Ana kaleko 2an dagoen heritarrentzako arreta bulego berrian ordaindu daiteke.

1953ko kintoak

1953ko kintokoek bazkaria egingo dute euren jaiotzaren 75. urteurrena ospatzeko. Martxoaren 31n izango da 14:30ean Sigma jaietxean. 12:30ean meza izango da Madalako elizan. Interesatuek Castrillejo estankon eman dezakete izena.

Trinitate jaietako feria

Debemen Elkartetik jakinarazi digutez, ekainaren 2an izango da aurten Trinitate jaietako feria. Bertan parte hartu nahi duten baseritarrek apirilaren 16a baino lehen eman beharko dute izena Debemen Elkartean (943744067).

XII. Barrikotea

Datorren martxoaren 31n XII. Barrikotea egingo da Kimetz Elkartean. Gaueko 21:00etan hasita, sagardotegiko menua dastatzeko aukera izango da: makailao tortila, txuleta eta intxaurrekin. Txartelak Txuri Beltz eta Jai Alai tabernetan erosi daitezke 18 eurotan.

Inkesta

Domekan pasatuko da Korrika Elgoibartik.

Korrika bezalako ekimenak beharrezkoak al dira euskara indartzeko?

M^a CARMEN IGLESIAS
Etxekoandrea
49 urte



“Bai, gu umeein ateratzen gara, egun polita izaten da. Nire inguruan gero eta gehiago hitz egiten da euskaraz Pena ematen diit euskara ez jakiteak.”

ARITZA DOMINGUEZ
Dendaria
32 urte



“Bai noski! Jende pila bat mugitzen da Korrikaren inguruan, umeak eta nagusiak. Honelako ekimen gehiago antolatu beharko lirarteke jendea kontzientziatzeko.”

M^a PILAR BERISTAIN
Irakaslea
46 urte



“Bai, dudarik gabe, garrantzitsuak dira. Jendea euskararekin senitsibilizatzeko balio du. Euskararen etorkizuna gure esku dago, ni baikorra naiz.”

MARIA GALINDO
Ikaslea
13 urte



“Bai, jendea asko motibatzen da. Gurasoak erdaldunak ditut eta erderaz egiten dugu etxean. Nire inguruan galtzen ari da euskara, honelako ekintzek bultzatzen dute.”

[BAI ala EZ?]

Jarraitzen al duzu M11ko epaiketa?

BAI %2

“Bai, ez gehiegi, baina komunikabideetan ateratzen denaren berri badaukat. Interesatzen zait gai hau eta mehatxu berri honen aurrean kezka apur bat ere piztu zait.”

EZ %98

“Ez. Normalian, epaiketak eta holako prozesuak nahiko luziak eta gorabeheratsuak izaten dira. Mehatxua hor dago, eta argi ibili beharko du Madrilgo gobernuak.”

Datorren asterako... Urtebete pasatu da ETak su etena iragarri zuenetik.

Su etenak aurrera jarraituko duela uste al duzu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

Zazpi-REN ESKUTIK

ORDENAGAILUEN MANTENURAKO AHOLKUAK

Gure ordenagailuak sarritan akatsak ematen ditu eta ez dugu ulertzen zergatik. Askotan entzun dugu ordenagailuak guk esandakoa egiten duela. Gaurkoan, ordenagailuak ondo funtzionatzeko aholku batzuk eman dizkigu Zazpi dendako Nekanek.

- Ohiko erabilerarako beharrezko software-a soilik instalatu eta ez erabili ordenagailua programa ezezagunekin probak egiteko. Bermerik gabeko eta jatorri ezezaguneko programen bertsioak ez erabili.

- Software-a modu egokian desinstalatu, sistema operatibotik edo software-aren aplikaziotik.

- Ez sartu datu gehiegi disko gogorrean. Ram memoria handitu ordenagailuaren erabileraren arabera. Ram memoria gutxi-ko ordenagailua edo disko gogorraren %90a beteta daukana asko moteltzen da eta arazoak ematen ditu.

- Bi disko gogor baldin badauzkagu, sistema operatiboa eta programak azkarrenean instalatu, eta bestea, eguneroko erabilerarako datu eta dokumentuak gordetzeko erabili.

- PCaren erabileraren arabera, DEFRAG eta SCANDISK tresnak erabili periodikoki.

- Periferikoak instalatzerakoan, sistema operatiboaren driver-ak erabili, eta eguneraketak Hardware egilearen webgunetik deskargatu.



- Beharrezkoak ez diren programak ez instalatu. Sistema operatiboaren eta ordenagailuaren programen baliabideak murrizten dira.

- Antibirus bakarra instalatu eta astero berritu, gutxienez.

- CPUa ondo aireztatuta eduki, hezetasun eta bero handia dagoen lekutik aldentu.

- CPUaren aireztargailuak, entxufeak, txartel grafikoa eta prozesadorea ondo dauden ziurtatu noizean behin, hautsa kendu beharrezkoa bada.

- CPUa piztuta dagoela ez mugitu bere lekutik eta ez kolperik eman. Disko gogorra eta disketera uneoro bueltaka dabilzta eta zerbait puskatu daiteke. Bestalde, CPUa mugitzerakoan kontu handiz egin, edozein pieza bere lekutik atera daiteke-eta.

- Ordenagailua piztuta dagoela konektatu edo deskonektatu daitekeen bakarra USB portua da. Gainontzekoetarako itzali beti ordenagailua.

- Korrante elektrikoa babesten duen filtroa erabili, tentsio igoera eta jaitsieraren eraginek babesteko. Egokiena Etengabeko Sistema Alimentazioa jartzea da, argia joaten denean, 5 minutuko iraupena eskainiko digu gure lana gorde eta ordenagailua modu egokian itzaltzeko.

- CPU barruan txartel berriak jartzerakoan kontuz ibili eta ondo aireztatzen direla ziurtatu.

	ZAZPI INFORMATIKA
zazpi@telefonica.net	
Pedro Muguruza, 8 behea Tel./Faxo: 943 74 37 87	

	Antonio Arilloaga, 1 Tel.: 943 74 81 05 info@softlan.biz
Softlan analisa & programazioa	
www.softlan.biz	

	Upaiz Zaharra 6 943 741 846 www.oninformatika.com on@oninformatika.com
on informatika	

	info@sigonet.es Netto Merkatalgunea Tel.: 943 74 02 40 ELGOIBAR
MICRO SYSTEM INFORMATIKA	
Jose Maria Aicibar kalea, 12 MUTRIKU	

GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Miren Arrieta

HONDURAS ETA NIKARAGUAN IBILI DA MIREN ARRIETA ELGOIBARTARRA. INGENIARITZA IKASI DU MODRAGON UNIBERTSITATEAN ETA IKASKETA AMAIERAKO PROIEKTUA EGITERA JOAN ZEN BERTARA. BERE NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUA IZAN DELA KONTATU DIGU, BERE IKASKETEKIN ZERIKUSIA ZEUKANA, ETA GAINERA ATZERRIAN. ORAIN PROIEKTUA IDATZI ETA AURKEZTEA BAKARRIK FALTA ZAIO IKASKETAK AMAITZEKO. ETA ONDOREN? ORAINDIK EZ DU ERABAKI ZER EGINGO DUEN, BAINA BIDAIATZEKO GOGOA DAUKALA AITORTU DIGU.

“Bizimodu berri batera egokitzen ikasi dut”



Ikasketa amaierako proiektua egitera joan zara Hondurasera...

Zerbait berezia egin nahi nuen, ez nuen nahi proiektua hemengo enpresa baten egitea. Bilatzen hasi eta proiektu hau aurkitu nuen. Copade eta AMS Gobernuz Kanpoko Erakundearen proiektua zen. Lau hilabete Madilen egin behar nituen eta sei hilabete Honduras eta Nikaraguan. Ez nuen zalantzarik izan. Gainera, Diseinu Industrialarekin zerikusia zeukan, beraz, nik nahi nituen bi aspektuak elkartzen ziren proiektu honetan, bata, nire ikasketekin lotura izatea eta bestea, atzerrian egitea.

Nolako enpresan egin duzu lan?

Arotz enpresa batean egin dut proiektua. Copade GKEak Madrilan dauka egoitza nagusia, baina Hondurasen ditu arotzak. Arrasateko AMS GKEak beriz, Hondurasen dauka enpresa. Horregatik izan nintzen bietan, bost hilabete Hondurasen eta hilabete bat Nikaraguan. Han egindako altzariak gero hemen saltzen dira. Diseinua Madrilan egiten da eta han produktua ekoizten dute. Bi erakunde hauek bidezko merkataritzan oinarritzen dira.

Zeitzuk dira bidezko merkataritzaren oinarriak?

Bidezko merkataritzak ziurtatzen du umeez ez dutela bertan lan egiten, edo kontrolatuta dagoela behintzat gazteen la-

BARREN



na, langileak ez daudela esplotatuta, soldata justu bat ordaintzen zaiela, ez dagoela emakume eta gizonezkoen artean desberdintasunik eta gainera, ingurugiroa zaintzen dela. Hori bermatzeko, egur zertifikatua lortu nahi da. Horretarako, egurra moztan den unetik produktu bukatua lortu arteko prozesu guztia zaintzen dute. Egur ilegal asko dago, edozein lekutan eta edozein modutan moztan da. Zertifikatu hori lortzeko egur guztia ondo aprobetxatu behar da, eta leku konkretu batzutatik bakarrik moztu daiteke.

Zein izan da zure lana enpresan?

Madritetik diseinuak eskuz eginda bidaltzen dira Honduraseri, eta han askotan ez zituzten ondo interpretatzen, marrazkiak ez zituzten ondo ulertzen. Nire lana izan da 3 dimentsiotan lan egiteko balio duen diseinu programa bat erakustea. Lehenengo Madrilan erakutsi nien eta gero Hondurasen. Programa honi esker, altzari bakoitza 3 dimentsiotan ikusiko dute eta ez da arazorik egongo. Lehen, askotan, altzariak egin eta 25 unitate akats berberarekin egiten ziren.

Zer ikasi duzu zure egonaldian?

Kultura oso desberdinak daudela munduan eta bizimodu berri batera egokitzea zer den ikasi dut. Kriston esperientzia izan da, gomendagarria eta errepikatze modukoa. Jende oso jatorra aurkitu dut.

Nolakoa da hango bizimodua?

Niri gehien harritu ninduen, bertara iritsi eta hainbeste ama ikustea izan zen. Edozein denda txikitik dago segurtasun goardia bat, bere jantzi eta metrailetarekin, bankora bazoaz erregistratu egiten zaituzte... Te-

lefono mugikorrarekin hizketan ikusten bazaituzte, kendu egiten dizute. Korruptzio handia dago, lapurretak... pistolak lortzea oso erraza da. Delinkuentziarekin lotuta daukaten arazorik handiena "marak" dira, bertako gazte taldeak dira, pandillak. Oso ondo antolatuta daude eta drogekin ere zerikusia daukate. Liskar handiak sortzen dira euren artean, taldeko kide bat hiltzen badute, bereaiek beste taldeko bat hiltzen dute. Ez zait tokatu hilketarik ikustea, baina inguruan norbaiten laguna edo semea hil zutela ia egu-nero entzuten zen.

“Honduraseko gabeziarik handiena hezkuntza da”

Zertaz bizi dira?

Kaleko salmenta ikusten da asko. Denda gutxi dago, baina edozein txokotan jendeak edozein produktu saltzen dizkizu: erlojuak, izozkiak, fruta... Kostaldean turismoa ere badago, bamekaldean ez gehiegi.

Zein da beraien gabeziarik handiena?

Hezkuntza izan daiteke. Ume batzuk josten dira eskolara, baina denak ez. Hezkuntzak ez dauka hemen bezalako garrantziarik. Osasun arloan, dena pribatua da, eta askok ezin dute medikuarengana joan

edo botikarik ordaindu ere. Guretzat herrialde pobrea da hura, baina bereaiek ez daukate sentsazio hori, bizitzeko nahikoa daukate. Gure diruarekin han aberatsa zara. Etxe bat egiteko hemen diru mordoak gastatzen dugu eta han lau egur zatirekin eraikitzen dute.

Egin al zenuen turismorik?

Bai, Gabonetan Mosquitian egon nintzan, Honduras eta Nikaragua artean dago, atlantiko kostaldean. Oso toki polita, bertara iristeko zaila da, abioneta txiki batean joan nintzen. Menditsua, erreka askorekin... Ez dago argi indarrik, etxeak egurrezkoak... Bereaien hizkuntza propioa ere daukate. Luzgari gustatu zitzaidan. El Salvador eta Costa Rican ere ibili naiz. Autobusez eta hegazkinez mugitzen nintzen. Herrialde batetik bestera joateko autobusak ondo zeuden, baina herri baruan ibiltzeko oso desberdina da. Ez dago ordutegirik, ez geltorik. Autobus txiki batzuk dira, eskua altxatu eta geratu egiten da.

Nikaragua eta Hondurasen artean, aurkitu al duzu alderik?

Bai. Nikaraguan herri txiki batean egon nintzen, Hondurasen baino gusturago. Segurtasun neurri gehiago dago, ez dago "mararik" Nikaraguan eta lasaiago ibiltzen nintzen kalean.

Aurrera begirako asmoak?

Orain proiektua idazten ari naiz eta hila bete amaieran aurkeztuko dut. Horrekin ikasketak amaituko ditut, eta ondoren, ez dakit zer egingo dudana. Bidaiazten segitzea gustatuko litzaidake.

DANTZA

VI. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa Herriko Antzokian

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketaren VI. edizioak astebukaera honetan gure herrian izango du hitzordua. Dantzariak Euskal Herriko hainbat herritatik etorriko dira. Donostia, Errenteria, Oiartzun, Lesaka, Deba, Lezo, Etxarri, Pasaia, Legazpi, Hernani eta Elgoibarko ordezkariak izango ditugu gure artean, hain zuzen ere.

Txapelketari bihar, zapatua emango zaio hasiera arratsaldeko 16:00etatik aurrera Herriko Antzokian. B mailako 11-15 urte bitarteko neska mutilak arituko dira taula gainean. Domekan, berri, A saileko 7-11 urte bitarteko dantzarien txanda izango da, goizeko 11:00etan hasita.

Parte hartzeari dagokionez aipatu, Elgoibarren eta A sailean, 19 mutil eta 52 neska arituko direla. B sailean, bestalde, 9 mutil eta 47 neska.

Orain arte, mutilen mailari dagokionez, Azkoitia, Legazpi, Beasain, eta Oiartzunen ospatu dira dantza txapelketak. Nesken kasuan berri, Beasain, Donostia,



Oiartzun eta Deban. Honi, astebukaera honetan Elgoibarren jokatu den txapelketa gehitu behar zaio eta beranduago, Lezon egingo dena. Ligaxka hau jokatu ondoren, puntuazio hoberenak eskuratu dituzten 15 dantzari, finalerako txartela erdietsiko dute, maila bakoitzeko 15 dantzari, alegia. Final nagusia, maiatzean

izango da, mutilena Errenterian eta neskena Legazpin. Elgoibarko dantzariak 12 dira, 2 mutil eta 10 neska. Orain arteko txapelketetan Elgoibarko dantzariak oso maila ona erakutsi dute. Horren adierazgarri, 3 txapelketatan garaile geratu dira hiru elgoibartar; beste hiru dantzari, bigarren postuan eta azkenik, beste bi, hirugarren.

Udaletxearen oharra

Udaletxetik jakinarazi digutenez, 2007ko San Bartolome jaierarako proposamenak egiteko epea zabalik dago. Beraz, ideia berriak edo musika talderen bat proposatu nahi duen orok, Udaleko Kultura Sailera jo dezake apirilaren 1a baino lehen. Proposamenak telefonoz egin daitezke 943742158 zenbakian edota e-mailez kultura@elgoibar.org helbidean.

Sevillana eta Kubako dantzak

Haizea Emakume taldeak antolatuta, pasa den astelehenean hasita, eta martxoaren 30era arte, sevillana eta Kubako dantzen ikastaroak eskainiko dira Merkatu Plazako goiko solairuan. Interetsatuek, informazio gehiago eskuratu dezakezue ondorengo telefono zenbakian: 943 943 70 07 91.

Emetik Bertso Kabareta gaur ikusgai izango dugu



Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perea bertsolariek gaur, "Emetik Bertso Kabareta" ikuskizuna aurkeztuko digute Kultur Etxeko Sotoan, iluntzeko 22:15etik aurrera.

Emanaldi honen bidez, ikus entzulei une atsegin bat igarotzeko gonbitea egiten die. Euren hitzetan, saio koloretua, gordina, umoretsua eta pikantea da honakoa. Kabaret giroan murgilduta, emakumeen ahotsak eta bizipenak bertsotan ematea helburu du ikuskizun honek.

Saio hau girotzeko, eszenografia, musika, olerkiak, antzerki elementuak eta bestelakoak erabiliko dituzte.

Korrika kulturalaren baitako ekitaldia dohakoa izango da. Udaleko Euskara eta Kultura sailei, Kutzari eta AEK euskaltegiari esker.

KORRIKA 15

Domeka honetan Korrika 15ari ongietorria emango diogu Sigmako zubian, eguerdiko 14:30ean



Euskararen lekukoa domeka honetan iritsiko da Elgoibarrera. Korrikaren 15. edizioa da aurtengoa eta testigua Saturixon hartuko bada ere, ongietorria Sigmako zubian egingo zaio, eguerdiko 14:30ean. Hemendik aurrera, herriko kaleak zeharkatuko ditu Korrikak. Pedro Mugu-ruzatik Karkizano gaina hartu ondoren, Altzolara zuzenduko da. Behin hemen, bertako bizilagunek helduko diote lekukoari Mendaroko Lan Bi enpresa pareraino. Segidan mendaroarrei pasatuko zaie testigua eta hauek izango dira Debaraino eramango dutenak. Ibilbide guzti honetan, Elgoibar, Altzola eta Mendaroko talde, eskola, udal, alderdi eta enparau ugari izango dira lekukoari eutsiko diotenak, euren euskararekiko atxikimendua erakusteko.

Elgoibarren errelebo bana egingo dutenak, ondorengoak dira: Haizea Emakume Taldea, Pilar Ikastetxea, Haritz Euskal Dantzari Taldea, Elgoibarko Ezker Batua - Berdeak, Kimetz Elkartea, Udal Euskara Batzordea, Euskadiko Kutxa, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, AEK Euskaltegia, Gazte Asanblada, Ikastolako langile, guraso eta ikasle-

ak, Txankakua, Morkaiko M.E. a, Eusko Alkartasuna, Altzola, IMH, Herri Eskola - Haur Eskola eta BH Instituta, Elgoibarko Ezker Abertzalea eta Alkorta Brokhaus-LAB.

Mendarora 15:20an iritsiko da lekukoa eta honako ibilbidea burutuko du: Lan-Bi enpresatik, San Antonio basiliza eta Azpilgoetako elizatik igaroz, errepide nazionaleraino eta autopistako zubira arte, txatarerixatik Sasiolako bidegurutzeraino. Parte hartzaileak berriz, Aizpe, Kilimon eta Bustin Alde gastronomia elkartek, In leike, Arno guraso taldea zein Ikastola, MTI, Mendaroko Udala eta Mendaroko Ospitaleko langileak izango dira.

Korrika txikia

Gaur bazkalostean, 14:45etan Pilar ikastetxeak, Ikastolak eta Herri Eskolak, AEK euskaltegiarekin batera antolatutako Korrika txikia ekitaldian parte hartu dute. Gure herriko kaleetan aritu dira korrika. Ibilbideari hasiera King-Kong-en eman zaio eta Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Arillaga, San Bartolome eta Errosario kaleak igarostean, Plaza Handian bukatu dute.

Ausartu zaituz eta egin salto!
Gai zara, gure laguntza duzu



EKINTZAILEAREN EGUNA DEBABARRENEAN



Emprendemos juntos.



Debabarreneko Garapen
Ekonomikorako Elkartea

Eskualdeko ekintzaileen baloren inguruko MAHAINGURUA

Moderatzailea: Alex Aranzabal (Herri Irratiko Zuzendaria)
Partehartzaileak: Aitor Gorosabel (Su ta Gar),
Patxi Usobiaga, Esperanza Zabala, Nekane Lasa (Debabarrena).
Portalean, martxoaren 29an, arratsaldeko 7etan.
Amalieran Klownklusio saioa eta luntxa eskeiniko dira.

ANIMA ZAITEZ!!



PAIS VASCO
DELAUSIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

berria euskarazko zinemarekin



MARTXOAREN 24AN
KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL!
filma DVD formatuan



MARTXOAREN 31N
AUPA ETXEBESTE!
filma DVD formatuan



+ 6,95€

Harpidedunentzat, %20 merkeago
bi DVDak 11 euro

Eskaera egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, **943 30 43 45** telefonora deitu edo **www.berria.info** izena eman.

FUTBOLA

Elgoibar eta Pedruscoren arteko derbia jokatu da domeka honetan Mintxetan



Eregional mailako Elgoibar futbol taldearen eta Pedruscoren arteko partida jokatu da zapatu honetan, arratsaldeko 16:30ean Mintxetan. Partida emozionantea izango da, bi taldeek sailkapen orokorrean duten postua aintzat hartuta. Batetik, gogorazi, Elgoibar B taldea denboraldi ona egiten ari dela. Horren adierazgarri, sailkapen orokorreko zazpigarren postuan dirau, 40 punturekin. 24 jardunaldiren ondoren, gutzira, 11 partida irabazi,

6 galdu eta beste hiru norgehiagoka, berdindu ditu.

Pedrusco taldea, berriz, 14. postuan aurkitzen da 23 punturekin. Sailkapeneko azken hirugarren lekuan aurkitzen da, SanPedrotarrak eta Segura K. E. taldeen aurretik; 6 partida irabazi, 13 galdu eta 3 berdindu ondoren. Honenbestez, biharko norgehiagoka garrantzitsua izango da bi talde elgoibartarrentzat. Honakoa 25. jardunaldia izango da.

Elgoibar bi erroberetan itzulia egingo da domeka honetan

Elgoibarko Herri Eskola eta bertako guraso elkarteak, txirindularitza taldearen laguntzarekin, domeka honetarako Sallobenteko txirinduari itzulia antolatu dute. Garapen iraunkorra dela eta, egiten ari diren jardueren artean, beste bat da honako kirol ekimena.

Foruen Plazatik aterako dira goizeko 10:15ean, eta, Elgoibarko kaleetatik itzuli bat egin ondoren, Sallobentera joango dira; handik ostera ere, Foruen Plazara itzultzeko. Plazan, freskagarriak jasoko dituzte parte hartu duten haur guztiek, eta txoriaz dastatzeko aukera ere izango da, han jarriko duten txoznan. Itzuli hau ez da lehiaketa izango; besterik gabe, beren helburua, jendeak distantzia laburretan txirindua gehiago erabiltzea da eta bide

batez, txirindularitza praktikatzeko ibilbide egokiak eskatu nahi dituzte.

Herriar guztiak parte hartzera gonbidatuta daude, bai haur, bai helduak. Gogorazi, kaskoa eramatea derrigorrezkoa izango dela.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 0 - Alaves 3
Bergara 1 - Elgoibar 2 (Erreg.)
Elgoibar 1 - Urola 4 (Nesk.)
Aloña Mendi 2 - Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 5 - Intxurre 0 (Kad.)
Urola 2 - Elgoibar 1 (O. Inf.)
Elgoibar 3 - Vasconia 2 (Inf. txiki)
Elgoibar 3 - Mutriku 0 (Aleb.)
Pedrusco 1 - Ilinxa 0

ARETO FUTBOLA

Frutas Adarra 5 - Kenci 6 (Euskal Liga)
Kenci 1 - Eraso 2 (2. mail. gipuz.)
Relojes Mondaine 3 - MCM 8 (Jub.)
Anoetako Gazte Asanblada 10 - Elgoibar 2 (Jub.)

ESKUBALOIA

Oreeta 16 - H. Txariduna 17 (Inf. mut.)
Gure Jorge 21 - Tecnifuelle 33 (Sen. mut.)
Aterpe 24 - Gamon 8 (Inf. nesk.)
Aterpe 19 - Pulpo 12 (Inf. nesk.)
Olasa 28 - Aloña 5 (Inf. nesk.)
Egia 7 - Olasa 28 (Inf. nesk.)
Arrate 31 - Tecnomec A 22 (Kad. mut.)
Arrate 33 - Pneumax 20 (Jub. mut.)
IMH 13 - Aiala B 24 (Kad. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 24
09:30 Elgoibar - Aloña Mendi (O. Inf.)
12:30 Elgoibar - Martutene (Jub.)
16:30 Elgoibar - Pedrusco (Erreg.)
Domekia, 25
10:00 Elgoibar - Urko (Alb.)

ARETO FUTBOLA Kiroledegian

Zapata, 24
13:00 Elgoibar - Egintza (Jub.)
16:00 Kenci - Grupo Ikusnet (Euskal liga)

ESKUBALOIA Kiroledegian

Zapata, 24
12:00 H. Txariduna - Orio (Inf. mut.)
18:00 Pneumax - Urdaneta (Jub. mut.)
19:30 Tecnomec A - Urdaneta (Kad. mut.)
Domekia, 25
09:30 H. Txariduna - Lezo (Inf. mut.)
11:00 Tecnifuelle - Donibane (Sen. mut.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalarri erregularrena 06/07

Jokalaria	Puntuak
1. Navarrete	47
2. Guinea	34
3. Iker Martinez	32
4. Iribar	24
5. Arruti	26
6. Alex Del Rio	19

ARITZA MONASTERIO MENDI GIDARIA

«23 urterekin ekin nion harkaitzean eskalatzeari»

Aritza Monasterio 41 urteko mendigoizale elgoibartarra da eta Perun bizi da, Mendikate Zuriaren oinetara dagoen Huaraz izeneko hirian. Hemen aterpetxe bat du eta nazioarteko mendi gidari gisa, urte mordoan daramatza, lanbidea eta afizioa uztartuz. 27 urte zituela, joan zen Perura. Urtarrilaren 20an Espainiako Mendizaleen Federazioaren eskutik, Europaz kanpoko mendi jarduera hoberenaren saria jaso zuen Mikel Saezekin batera, Rondoy mendian irekitako "Bagabiltza" bide berriagatik. Aritza Monasterio une hauetan Euskal Herrian aurkitzen da eta maiatzera bitartean gure artean izango da. Gainera, Elgoibarren mendiaren inguruko bi emanaldi aurkeztuko ditu apirilaren 18an eta maiatzaren 2an.



► Betidanik izan al duzu gustuko mendia?

Txikitatik izan dut mendiarekiko zale-tasuna. Baina, harkaitzean eskalatzeari beranduago ekin nion, 23 urterekin eta lagun artean. Pixkanaka Pirineotara joaten hasi ginen eta izotzeko korridoreak eskalatzeari heldu genion. Berehala, 1991. urtean espedizioan joan ginen Perura.

► Zenbat gailur egin dituzu urte guzti hauetan?

Ez dakit zenbat. Izan ere, adiskideekin burutzen ditudan eskaladez gain, nire lanbidea medio, beti mendian naiz. Sarrien igo ditudan mendiak, Mendikate Zurian eta Huayhuash mendikatean eginikoak izan dira: Alpamayo, Pisco, Huascarana... Azken hau, Peruko mendirik garaiena da (6.768 metro) Ameriketako bosgarrena, eta munduko gain tropikalik altuena.

► Inoiz zortzi milakorik egiteko saiakerarik burutu al duzu?

Bai. 2003. urtean, Manaslura joan ginen espedizio batean. Baina, eguraldi txarraren ondorioz, 2. kanpoa desagertu zen eta honek ez zigun jarraitzeko aukerarik utzi, nahiz eta, gailurra erasotzeko prest sentitzen ginen. Zortzi milako bat egitea, gustatuko litzaidake probatze aldera; baina, ez da inolaz ere, mendia egiteko moduari erreparatzen badiogu, gehien betetzen nauena. Alderantziz, Perun egiten dudan alpino motako eskaladak gehiago asetzen nau. Besteak beste, mendia egiteko modua, estiloa, mentalitatea

eta zailtasun mailaz aparte, ingurugatik, hau da, etxean bezalaxe sentitzen naizelako.

▶ Zein izan da igoerarik zailena?

Igotze guztiek zailtasun eta gogortasun baremo berdintsua eduki dute. Siula Grande, Chacaraju, El Trapecio eta Rondoy azpimarratuko nituzke. Siula Grande kenduta, gainontzeko gailurrak egun bakarrean burutu izan ditugu, 24-28-30 orduz segidan ibilita, apenas ekiporik gabe, eta soilik, ordezeko eskularru batzuk eta edateko zerbaitekin hartuta. Siula Grande egiteko, aldiz, hiru egun behar izan genituen gailurrerako joanean eta beste egun bat, beheranzkoan. Zailtasun graduari, igoera bakoitzaren ezaugarri, bizipen eta sentipen propioak erantsi behar zaizkio.

▶ Momentu limiterik bizi izan al duzu?

Aldi bat baino gehiagotan ikusi izan dizkiot hortzak otsoari. Orain dela urte batzuk, Chacaraju mendian hormaren erdian rapelatzen ari ginela, gailurretik serak (glaziar bateko izotzeko bloke handia) bat erori zen juxtu gure alborra. Zorionez, ez zen deus ere gertatu, adiskide bati golpe batzuk baino ez zizkion sortarazi. Beste behin, Chacarajun, baita ere, 2004an. Aldi hartan, hiru lagun gindoa zen mendian gora, bat aurretik eta beste biok atzetik. Modu honetan, nire adiskide Marianek ez zeraman frontalik aurrealdean eta ni nindoan aldiro-aldiro Marian argizatzen. Oso zona zaila zen. Berak ongi ikusten ez zuenez, hanka elurtutako harkaitz baten gainean jartzera zihoala, hankak kale egin eta erori egin zen. Ni une hartan, fren babesle bat ateratzen ari nintzen, eta berak sokatik tira egin ostean, biok erori eta airean zintzilik geratu ginen. Gure adiskide Pable gailurreko goi aldean zegoen eta bion pisua eutsi zuen zenbait minututan, zinez, oso luzeak egin zitzaizkion.

▶ Zein gailurretik ikusi duzu paisaiarik ederrena?

Nevado Pisco izeneko mendi elurtutik ikusten dena. Jende askok igotzen duen mendia da eta nik beti esaten dut, Mendikate Zuriak, 360 gradutan bere jiran hartzen dituen bistarik ederrenetatuz gozatu daitekeela hemendik: Alpamayo mendia, Huascaran, edo Piscoko tontorra.



«Behin baino gehiagotan ikusi izan dizkiot hortzak otsoari»

▶ Amets edo erronkarik?

Peruko mendietatik kanpo, Pakistaneko Severum 4 mendia igotzea gustatuko litzaidake; betidanik asko erakarri nauen mendia delako.

▶ Zer eskaini dizu mendiak?

Mendiak nire bizitzako unerik zoriontsuenak eman dizkit. Nik, andinismoa, mendia ulertzeko dudaren moduaren arabera definitzen dut: mendia nola planteatu, ikusi, zein eratan gerturatu, eta nola egiten saiatzen naizen. Jende ugari filosofia bera du. Apur bat nire bizitza modua da.

▶ Zer ikusi ahal izango dugu Elgoibarraren aurkeztuko dituzun proiektioetan?

Apirilaren 18an eskainiko den filmak, 1998. urtean Siula Grande mendira burutu genuen espedizioaren nondik norakoak azaltzen ditu. Bigarren saioa berriaz, maiatzaren 2koa, ekoizpen digitalizatu bat da; azkenengoz burutu ditugun hiru eskaladak (Chacaraju 2004, Trapecio 2005 eta Rondoy 2006) jasotzen dituen. Iru-diek euren kabuz hitz egiten dute. Musika Eskolan izango dira proiektioak eta Morkaiko M. E. ak eta Udal Patronatuak antolatutako saioak dira.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun eta arropa esekilekua. Garaiea eta ganbara. ☎ **943740194**
- ▶ Duplex-a salgai Artetxe kalean. 4 logela, sukaldia, egongela, bainugela. Eguzkitsua. ☎ **696266982**

Arbeloa Inmobiliaria

Pisu erreformatuak salgai.
Berogailua eta igogailua.
200.000 euro-tik hasita.
San Frantzisko, 34

☎ **943 74 84 27**

☎ **699 953 021**

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldia-egongela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **688650060**
- ▶ Duplex-a salgai Urasandin. 86m² eta 3m²-ko balkoia. 3 logela, sukaldia, egongela, bainua eta komuna. Trasteroa. Kanpoaldera begira, hegoalderantz, eguzkitsua. ☎ **943744403**

ALOKAIRUA

- ▶ Elgoibar edo inguruan logela bat hartuko nuke alokairuan. ☎ **667733671 (Arrate)**
- ▶ Logela bat alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**
- ▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **695788742**
- ▶ Logela bat edo apartamentua hartuko nuke alokairuan. ☎ **671110796 (19:00-21:00)**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaie marraduna salgai lkastola ondoan. Estalia. ☎ **943743578**
- ▶ Garaie marraduna alokatzen sa San Roke kalean. ☎ **943741436**
- ▶ Garaie itxia alokatzen dut Urasandi eta Madala artean. ☎ **659141232 (17:00-20:00)**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Hozkailua, arropa garbigailua salgai (Opsen kontsumo bajukoa), mikrouhina (Linea). 500 euro. Mendiko bizikleta oparitzen dut. ☎ **666148037**
- ▶ Lursaila salgai Eibarren. 22.500m². 16 urteko pinuarekin. ☎ **943033503**
- ▶ Lasturren baserria salgai, terreno eta guzti. 10 hektarea. ☎ **943740037/605741485**
- ▶ Ortua konpartituko genuke. Ura, zimaorra eta lanerako tresnak ditugu. Herritik gertu. ☎ **655723678**
- ▶ Edergintza bateko makina eta tresnak salgai. 2 ohatila, sauna, solarium, esterilizadorea eta Sorisa etxeko 2 mahai. ☎ **676686758/943743959**
- ▶ Intel ordenagailua salgai. 2.6 GHz, 512 Mb RAM, 40 Gb disko gogorra, DVD grabagailua, modem, 17"-ko pantaila, eskanerra, TV txartela. 250 euro. ☎ **943742291**
- ▶ Telebista salgai. 28", 100 hertzio. Panasonic, pantaila laua, ipurdia-ekin. 250 euro. Gutxi erabilia. ☎ **636257546**
- ▶ Bigarren eskuko aukak salgai. ☎ **620810120**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garaieak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu edo sukaldari moduan lan egiteko prest. ☎ **654604798**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **667709439**
- Neska lanerako prest. ☎ **626767586**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin... ☎ **617056828 (Lili)**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin... ☎ **666273122 (Marlene)**
- Neska lanerako prest. ☎ **638520765**
- Mutila igelsero edo pintore laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. ☎ **650813847**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketa lanerako prest. ☎ **650813847**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **660511781/943742330**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako prest. Gida baimenarekin. ☎ **628613143**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa edo kamarera lanerako prest. ☎ **638527915**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako prest. ☎ **671476869 (Maria)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako prest. ☎ **610632782 (Marta)**
- Neska garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649368137**
- Gizona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **638494501**
- Neska gaztea arratsalde ume txikiak zaintzeko prest. ☎ **600336245**
- Gizona obretan, igelsero, edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **616512795**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **639020180**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **943741685**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **663569263**

ESKAITZA


- Jatetxerako kamarera behar da. ☎ **943 121262**
- Kamareroa behar da tabeman lan egiteko. ☎ **943743196**
- Eibarko enpresa batek I+D+In lan egiteko ingeniari tekniko industrialara behar du. Bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Eibarko enpresa batek ingeniari elektronikoa behar du. Ingelesa eta bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Eibarko enpresa batek makina berezien montadore mekanikoa behar du. Ingelesa eta bidaiatzeko prest. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**
- Adineko emakumea zaintzeko neska behar da. Atzeritarrak ez izatea. ☎ **676894367**

- Larunbatetan tabeman lan egiteko neska behar da. ☎ **670654921**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **670250429**
- Egur Arte Tailerrean margo artistikoko klaseak emateko pertsona behar da. Interesatuak Egur tailerera joan daitezke. (Aita Agirre Plaza z/g 2. pisua. 18:00-20:00)
- Uztaileko ingeleseko udalekue-tarako begiraleak behar dira. ☎ **943712055 (Silvia)**

ABISUAK

- Lehenengo Batxilergoko klaseak hartuko nituzke. ☎ **627104915**
- Txanodun txamarra berdea galdu nuen King-Kong eta Aterpe artean martxoaren 12an. ☎ **652738043**
- Perikito berde bat aurkitu dut Upai-Zaharra inguruan. ☎ **943740420**
- Hozkailu bat hartuko genuke lokalerako. ☎ **627104915**
- Mutil bat zaintzeko gizonetzkoa behar da. Gizon aktiboa. Bolondresa. ☎ **943 74 07 01**

[ZORIONAK]



▶ Kariño guriari mila kilo zorion bere 1. urtebetetzean.



▶ Zorionak gure prezioso **Unax** martxoaren 26an 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Itaki** martxoaren 27an 13 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez. Txapeldun!



▶ Zorionak **Endika** eta amama Dolores, urteak egingo dituzulako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Unai** zure 5. urtebetetzean. Maite zaitugu.



▶ Zorionak **Alaitz** martxoaren 20an 9 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Iratiren partez.



▶ 3 patxo haundi gure mutil haundixari. Familiakoen eta bereziki, Iratiren partez.



▶ Zorionak **Malena** atzo 5 urte egin zenituelako. Guraso eta anaia Ionon partez.



▶ Zorionak **Ane** hilaren 27an 6 urte egingo dituzulako, printzesa! Etxekoen eta bereziki, Iratiren partez.



▶ Zorionak **Leire** martxoaren 26an 11 urte egingo dituzulako. Musu handi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak gure etxeko **arratoitxo eta umetxoaril** Familiakoen eta bereziki, Alejandroren partez.



▶ Zorionak etxeko **bikoteari** bihar 5 urte egingo dituzuleako. Ondo pasa eguna.

▶ Zorionak **Juanbol!** Iturri tabemakoarentzat, 62 urte betetzen dituelako. Inakiren partez. Aupa Athletic!

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

AISIALDIRAKO ZUZENDARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Aisialdirako zuzendari titulua
- Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- Harremanetarako dohainak
- Euskara maila ona.

Baloratuko da:

- Esperientzia sektorean
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Eskaintzen da:

- 40 orduko lan astea eta urtebeterako lan kontratua (luzatzeko aukerarekin).

Curriculumak jasotzeko azken eguna: apirilak 3.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com



[OKINDEGIA]



25 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
23 Fernandez
24 Yudego
25 Yudego
26 Zabaleta
27 Etxeberria (*Errosario*)
28 Ibañez
29 Bidasolo
30 Etxeberria (*Santa Ana*)

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



ESKERTZA

2007ko martxoaren 21ean hil zen
Pedro Mari Arizmendi Zubiaurreren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko martxoaren 20an hil zen
Jose Mari Lizundia Garateren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2006ko martxoaren 26an hil zen
Juan Jose Isasti Gagoren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
igandean, martxoak 25, eguerdiko 12:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik..



[2 BARIXAKUA]

14:45 KORRIKA TXIKIA
King-kong-etik Plaza Handira
Antolatzailea: AEK euskaltegia

18:30 ODOL ATERALDIA

Udaleko pleno aretoan

22:15 EMETIK BERTSO KABARETA

Bertsolariak: Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea
Kultur Etxeko sotoan
Dohainik
Antolatzailea: Kutxaren Gizarte-ekintza

[24 ZAPATUA]

**11:30 IMH INGENIARITZA
ESKOLAKO ATE IREKIEEN EGUNA**

IMHko Karakate gelan

12:30 GAZTE EGUNA

Egun guztian zehar

12:30ean Madalatik aterata

Triki-bertso poteoa

14:00etan Paellada herrikoa

Gaztetxean

Ondoren, jolasak

21:00etan Kontzertuak

Taldeak: "Extorsion" eta "Grisés sueños"

**16:00 ELGOIBARKO VI. AURRESKU
ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA**

Herriko Antzokian

Antolatzailea: I. Bereziartua musika

eta dantza eskola

17:30 BOLO TXAPELKETA

Gipuzkoako 38. Hiru Txirlo Bolo

Txapelketaren saioa

San Roke auzoko bolatokian

[25 DOMEKIA]

10:15 ELGOIBAR BI ERROBERETAN

Sallobente-Ermuaranera bizikletaz

joan-etoria

Irteera: Plaza Handitik

Antolatzailea: Herri Eskolako guraso

elkartea

**11:00 ELGOIBARKO VI. AURRESKU
ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA**

Antolatzailea: I. Bereziartua musika

eta dantza eskola

14:30 KORRIKA 15 ONGI-ETORRIA

Sigmako zubian

[29 EGUENA]

19:00 EZKER ABERTZALEAREN

HERRI BATZARRA

Gaia: Hauteskundeak

Kultur Etxean

[30 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

ZINE KARTELEDIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Apocalypso»

23, barixakua: 22:15

24, zapatua: 19:30-22:15

25, domekia: 19:30-22:15

26, astelehena: 21:30

«Cristobal Molon» (Euskaraz)

25, domekia: 16:30

«Grbavica» (Z.K.)

29, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«La vida de los otros»

23, barixakua: 19:30-22:15

24, zapatua: 17:00-19:30-22:15

25, domekia: 17:00-19:30-22:15

26, astelehena: 19:30-22:15

27, martitzena: 19:30-22:15

28, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Apocalypso»



Zuzendaria: Mel Gibson.

Antzezleak: Rudy Youngblood, Jonathan Brewer.

Mayatarren zibilizazioaren azken une goraberratsuetan kokatu du filma honetako kontakizuna Mel Gibson zinegile australiarak. Kanpotar erasotzaileen eraso bortitzak mayatarren biiztza lasai etya zerutiara apuryuko du goitik behera. Hau ikusirik, gizon batek ezagutzen ez duen mundu arriskutsu batera bidaiatu hasiko du. Patuak, baina, beste asmo batzuk zituen gizon honentzat eta etxerako bidea hartuko du berriz, emazte eta semearen amodioak bultzatuta.

«Ficción» (Z.K.)

Zuzendaria: Jasmila Ćibarić.

Antzezleak: Mirjana Karanović, Luna Mijović.

Sarajevoko Grgavica auzoan kokatzen da istorio hau. Esmak, bere 12 urteko alabak (Sara) eskolak antolatutako irteera batean parte har dezan nahi du. Erdi prezioan irten dadin nahikoa izango litzateke amak bere senarra gerran martiri gisa hil zela jartzen duen ziurtagiria sinatzea, baina Esmak ez du nahi horrelakorik. Nahiago du zeruia eta lurrira mugitu bidaiatu ordaintzeko diru bila alabak eskatzen diona egin aurretik. Alabari egia kontatzen ez badio biak babesten ari dela sinistuta dago.

Atzera hegira



1925. urteko erretratu zahar hau **Fernando Corok** laga digu. Elgoibarko mutil koadri-la bat ageri da argazkian. Erretratua herriko inguruneren batean aterata egongo da, baina ezin izan dugu jakin zehazki zein leku den. Seguruenik, hauxe izango da BARRENen argitaratu dugun argazkirik zaharrena. Urte asko pasatu dira ordutik, eta saiatu garen arren, ez dugu lortu protagonista guztien izena jakitea. Hala ere, argazkia jartzea merezi duela iruditu zaigu. Esan beharra dago, 1936ko gerra hasi zenean, hauetako gizon batzuk kanpora alde egin behar izan zutela, batzuk Mexikora, besteak Frantziara... Gizon hauek guztiak hilda daude. Gogora ditzagun zein diren. Goian, ezkerretik eskumara: **Rikardo Astigarraga**. (Ondorengo hirurak ez dakigu zein diren). Beheko ilaran: **Santi Barrutia "Goiko Errota"**, Jesus eta Elias Coro anaiak. Azken hau Elgetako idazkaria izan zen.

MAHASTI 

Jose Angel Zabala
URDATEGIA eta ARDANDEGIA 

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

Pizzeria eta taberna

Salento

Martxoaren 25ean San
Frantziskoko lokala itxiko dugu.

**LASTER GURE LOKAL BERRIAN
AURKITUKO GAITUZU!**





Ibilgailuak

- Naziokoak eta kanpokoak
- 0-km eta ia berriak
- Marka guztiak
- Ibilgailu industrialak
- Monobolunenak, 4 x 4 ibilgailuak eta autokarabanak

- Finantzaketa personalizatua.
- Ibilgailu guztiak aztertuta eta berme guztiarekin.
- Lantegi propioa



Mercedes-Benz



Pneumatikoetan gama berri bat dugu:  **MABOR**

Continental  -en Alemaniako teknologia.

195/65/15-H	68€
205/65/15-V	87€
185/65/14-H	64,5€
225/45/17-ZR	112€

Muntaketa, orekatzea eta nitrogenos putzea barne.
%16 BEZ-a aparte.

Kalitate altua. kostu baxuekin

AXIER, S.L.

Erreparazio Zentroa

Garagarza, 1 - MENDARO
Tel.:943 75 71 60 - Fax.:943 75 50 72
e-posta: axiersl@axiersl.com

5. EDIZIOA

IMH SARIAK



Ikasle ohi aipagarria
2006-2007eko ikaslea
Fabrikazio Arloko ikaslea,
2006-2007 ikasturtea



■ Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

■ Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2007ko martxoaren 30
Ordua: 12.30etatik-13.30etara
Tokia: IMHko Areto Nagusia

Babesa



Kolaborazioa

AGME, S.A. · ALCORTA BROCKHAUS, S.A. · AUTOMATION ORIA, S.L. · BERDIN, S.L. · BIAL MEKANIZAZIOAK, S.L. · BIELE, S.A. · CRISTALUX LIMPIEZAS, S.L. · DELTECO, S.A. · ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. · FAGOR ARRASATE, Koop. E. · GAINDU, S.A. · GLUAL HIDRAULICA, S.L. · GORATU, S.A. · GRUMAL, S.L. · IBARMIA, S.A. · IMS CONSULTORES INDUSTRIAS ALGA, S.A. · INDUSTRIAS KOKATU, S.L. · INDUSTRIAS METALA, S.L. · INTZA, S.A. · JUARISTI, S.L. · LAIP, S.A. · MAZA · MECANIZADOS GURRUTXAGA · METAL PERFORMERS, S.A. · PIERBURG · PIXEL SISTEMAS, S.L. · PNEUMAX, S.A. · REYMA, S.L. · SAMMIC, S.L. · SIERRAS SABI, S.A. · SPICER AYRA CARDAN, S.A. · T.M. NORMA, S.A. · TALLERES AIBE, S.A. · TEKNIKER · ZEHATZ, S.L.



Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 · E-20870 Elgoibar, Gipuzkoa · Tfnoa.: 34 943 748 265 - 34 943 744 132 · Faxa: 34 943 744 153 · imh@imh.es · www.imh.es